Elorrioko udala

ELORRIOKO HAUR ESKOLA ETA HAUR HEZKUNTZARAKO MODULU PREFABRIKATUAK ERRENTAN EMATEKO HORNIDURA PROZEDURA IREKI ETA PREMIAZKOAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta jardueraren xedea 2
2. Kokapena 2
3. Legeria aplikagarria 2
4. Kontratuaren xedea 3
5. Xedapen orokorrak 3
6. Epeak eta bermeak 5
7. Modulu prefabrikatuetarako gutxieneko baldintza teknikoak 6

1. Sarrera eta jardueraren xedea

Elorrioko Haur Eskola eta Haur Hezkuntza Goieta kaleko 62. zenbakiko eraikin batean dago.

Eraikina osorik eraberritu behar da eta obrek, gutxi gorabehera, 12 hilabete iraungo dute; hori dela eta, Haur Eskola eta Haur Hezkuntza gelaz hornitu behar da behin-behinean, fabrikazio berriko modulu prefabrikatu desmuntagarriak erabiliz. Modulu horiek, beharrizanen programaren arabera, dagozkien instalazioak izango dituzte: ura, saneamendua, elektrizitatea, klimatizazioa, etab.

Ezinbestekoa da instalazioak eskainiko den zerbitzurako egokiak izatea eta diseinu funtzionala, segurtasuna eta hezkuntzarako tratamendua kontuan hartzea.

2. Kokapena

Modulu prefabrikatuak Elorrioko Eskolaren aurrean dagoen kanpoko aparkalekuan kokatuko dira.



3. Legeria aplikagarria

Adibide gisa eta ez modu zehatzean, hona hemen bete beharreko araudia:

- **Hirigintza Plana, aplikatu beharreko udal araudia eta ordenantzak**; **EKT** Eraikuntzaren Kode Teknikoa; **Irisgarritasunari** buruzko araudia (20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Eusko Legebiltzarrarena eta hura garatzen duen Dekretua, 68/2000, apirilaren 11koa; TMA/851/2021 Agindua, uztailaren 23koa, espazio publiko urbanizatuetan sartzeko eta haiek erabiltzeko irisgarritasun eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duena); **Egiturazko Kodea**; **NCSS-02** Eraikuntza Sismoerresistentearen Araua (ED 997/2002, irailaren 27koa); Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua (RITE); **Legionellosiari** buruzko araudia; Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa REBT (ED 842/2002, abuztuaren 2koa); eraikuntzako produktuak eta eraikuntzako elementuak haien **Sutearen aurreko Erreakzio- eta Erresistentzia**-propietateen arabera sailkatzeko araudia, (ED 842/2013, urriaren 31koa); **Suteetatik Babesteko Instalazioen Araudia** (ED, 513/2017, maiatzaren 22koa); **Segurtasun eta Osasun, Kalitate Kontrol eta Hondakinen kudeaketarako** araudiak, **215/2004 Dekretua,** azaroaren 16koa,0 eta 3

urte bitarteko umeentzako haur eskolek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak ezartzen dituena, eta aplikagarria den eta indarrean dagoen gainerako araudia ere.

4. Kontratuaren xedea

Egungo eraikina eraberritzeko obrek irauten duten bitartean, Haur Eskolako eta Haur Hezkuntzako irakasle eta haurrak hartzeko behar diren gela guztiak izango dituen eraikin prefabrikatu bat instalatzea.

Kontratuaren barruan dago moduluen hornidura eta instalazio osoa, sartzeko prest. Horien instalazio osorako beharrezkoak diren obra zibila eta instalazioak barne. Kontratuaren barruan dago moduluak eta instalazioak desmuntatzea ere.

Agiri honen xede den hornidurak, honako haur hartzen du:

Haur Eskola:

- 8-10na haur hartzeko edukiera duten 2 gela
- Office bat
- Komunak, aldatzeko mahairako lekuarekin
- Siesta egiteko gela

Haur Hezkuntza:

- 13na haur hartzeko edukiera duten 2 gela
- Komunak gelen artean
- Erabilera anitzeko gela bat, jantokia eta psikomotrizitate gela izateko

HE eta HHrako espazio komunak:

- Lan bulego bat, ordenagailua duten bi lanleku eta 1x2 m inguruko mahai batentzako lekuarekin.
- Komunak eta aldagelak.
- Haurren kotxetxoak uzteko aterpe/espazio estali bat.
- Biltegia

Betekizun orokorrak, D215/2004 5. Artikulua:

- Erabilera esklusiboko lokaletan kokatzea, kanpotik sarrera bereiziarekin.
- Hainbat erabileratarako espazioa, 30m² baino txikiagoak ez diren azalerekin
- Zuzendaritza /Idazkaritzarako lan-bulegoa
- Jolaserako gune bat, 1 eta 3 urte bitarteko haurrentzat, mugatua egongo dena haurren segurtasuna bermatzeko, eta erabiltzen den bitartean erabilera esklusiboa izango duena. Sei unitate eta zatiki bakoitzeko, 75m² baino txikiagoa ez den azalerarekin. Aipatutakoak gainditzen dituen unitate berri bakoitzeko, beste 10m² gehituko dira.
- Langileentzako komuna, unitateetatik eta haurren komunetatik bereiz: konketa, komun-ontzia eta dutxa izango dituena.

5. Xedapen orokorrak

Instalatu beharreko eraikinak, multzo bukatuak osatzeko, osagaien mihiztatze edo atxikitze lanak ahalbidetzen dituzten fabrikazio berriko modulu prefabrikatuez osatuko dira. Osagaien neurriak muntaketa aparteko baliabiderik gabe egitea eta ibilgailuentzako ohiko bideetatik garraiatu ahal izatea ahalbidetu behar du. Moduluak solairu bakarrean kokatuko dira.

Nolanahi ere, Baldintza Teknikoen Agiri honetan zehazten diren aginduetara doituko dira eta, motari dagokionez, Haur Eskolaren eta Haur Hezkuntzaren beharrizanen programara.

Horren ildoan, erabilerak honako hauek izango dira: ikasle eta irakasleentzako komunen nukleoak, aldatzeko mahaiak, lan-bulegoa, officea, jantokia, aldagela, psikomotrizitatea eta biltegia.

Moduluak honetarako izango idira:

- Ikasgelak

- Siesta egiteko gela
- Jantokia
- Officea
- Komunak
- Aldagelak
- Biltegia
- Psikomotrizitate gela
- Aldatzeko mahaia
- Zirkulatzeko espazioak
- Haurren sillak eta karrotxoak uzteko ataripea

IKASGELA: 30m² erabilgarri inguruko azalera duen irakaskuntzarako espazioa

Diafanoak izango dira, errektangularrak, 2,50 m-ko altuera librekoak. Atondotik sarbide zuzena izango dute.

SIESTA EGITEKO GELA: Horman leihoak izango ditu, gutxienez 3+3 lodierako segurtasuneko kristalekin, bertatik erraz ikusteko moduan, eta isolamendu akustikoarekin.

JANTOKIA: Diafanoa izango da, 2,50 m-ko altuera librekoa.

KOMUNAK: Zerbitzu higienikorako espazioa.HEko ikasleek komunetarako sarbidea HEko ikasgeletatik izango da.

HAURRENTZAKO KOMUNAK: haurren adinari doituriko neurriko bi konketa eta bi komun-ontzi izango dituzte.

ALDATZEKO MAHAIA: Ikasgeletan haurren higienerako lekuak izango dituzte, elkarren artean ikusteko moduan, lan egiten duten bitartean hezitzaileek haurrekin komunikatu eta erlazionatzerik izan dezaten.

Haurren garbitasun eta higienerako gunea sabairaino itxita egongo da; bertan, haurra aldatzeko altzariak eta bainuontzi bat ipiniko dira, mahukako txorrota eta eskuz eragiten ez den beste bat dituena.

Haurren garbitasun eta higienerako guneak ezin dira inola ere geletara sartzeko guneak izan.

Haurren garbitasun eta higienerako gunea irekitzeko leihoa duen kristal batez itxita egongo da sabairaino; horrela, leihoa zabalik dagoela, hezitzaileek haurrekin hitz egin eta erlazionatzeko modua izango dute, eta haurrak bistan izango dituzte une oro. Leihoa duen kristala 0,90 m-ko altueratik gora ipiniko da, eta gutxienez 3+3ko lodiera duen segurtasuneko kristala izango da. Aurreko irizpideari jarraitu behar zaio, eta gauzak kokatzeko unean kontuan hartu behar da hezitzaileak haurrei bizkarra ematen egon behar ez izatea haietako bat aldatzen ari denean. Proposatzen den konponbidea, funtsean, hauxe da: gaineko estalki zabal bat, haurra eroso aldatu ahal izateko eta, aldi berean, harekin komunikazioa mantendu ahal izateko.

KOMUNA/ALDAGELAK: konketa, komun-ontzia, dutxa, armairuak, xaboiontzia dosifikatzailea eta paperezko toallen euskarria.

OFFICEA: Elikagaiak prestatzeko gune egokia izango dute, elkarren artean ikusteko moduan, lan egiten duten bitartean, hezitzaileek haurrekin komunikatu eta erlazionatzerik izan dezaten.

Elikagaiak prestatzeko guneak ezin dira inola ere geletara sartzeko guneak izan.

Biltegirako gune bat, zakarretarako espazioa, hozkailua, ontzi-garbigailua, mikrouhina eta harraskarako lekua izango du.

ERABILERA ASKOTAKO GELA: Hainbat erabilera izango dituen gela da; hala nola, psikomotrizitatea, jangela, etab.

BILTEGIA: gutxienez, 15m² izango ditu.

LAN-BULEGOA: bi ordenagailu kokatzeko espazioa duen mahai bat eta 1x2 m-ko beste mahai bat eta inprimagailurako espazioa izan behar ditu. Interneterako konexioa edukiko du.

JOLASERAKO GUNEA: haurren segurtasuna bermatzeko, erabat mugatua egongo den espazioa izango da, eta erabiltzen den bitartean erabilera esklusiboa izango du.

ATARIPEA: haurren kotxetxoak uzteko espazio estali bat izango du.

6. Epeak eta bermeak

Hornidura emateko, garraiatzeko eta muntatzeko epea kontratu hau sinatzen denetik hilabetekoa izango da, gehienez.

Kontratua amaitu dela jakinarazitakoan, desmuntatzeko epea hilabetekoa izango da, gehienez.

Honako hauetatik ondorioztatutako gastuak enpresaren konturakoak izango dira:

- Muntatzeko eta desmuntatzeko bitartekoak (garabiak, autogarabiak, etab.)
- Moduluak dagokien kokapenera garraiatzea
- Barneko instalazio guztiak moduluen oineko konexio orokorrera konektatzea
- Instalazioak Industria Sailean legeztatzea
- Garraioan, muntaketan edo desmuntaketan sortutako matxurak edo kalteak konpontzea
- Muntaketa eta desmuntaketa-lanetarako korronte elektrikoa
- Eragindako hondakinen kudeaketa
- Muntaketak eta desmuntaketak iraun artean, segurtasun eta osasun arloko koordinazioa
- Dagokion BEZ
- Modulu prefabrikatuak kokatzeko beharrezko obra zibila
- Moduluetan behar diren zerbitzuak prest ipintzea (ura, saneamendua, elektrizitatea, etab.)

Beste alde batetik, muntaketan sortzen diren hondakin guztiak honako arau hauetan xedatutakoari lotuta tratatuko dira: eraikuntzako hondakinak kudeatzeko 105/2008 ED, eta 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena arautzen duena.

Modulu prefabrikatuen berme-epea kontratuak irauten duena izango da, eta esleipendunak hitza eman behar du epe horretan akatsen bat duen edozer konpondu eta ordeztuko duela.

Enpresek bermean dagoen edozein gorabehera, abisua ematen denetik 24 ordu igaro baino lehen artatu beharko dute. Enpresaren konturakoak izango dira bermea behar duten konponketen eskulanari, baliabideei eta materialei dagozkien gastu guztiak.

Halaber, mantentze-lan prebentiboa eta zuzentzailea egin beharko du urtean hiru aldiz, eta moduluen egoera osorik ikuskatu beharko du: egituraren segurtasuna eta erabilerari dagokiona, bizigarritasuna eta estankotasuna. Arreta berezia jarriko die honako elementu hauei:

- Estalkiak eta erretenak: enpresak urtean hiru aldiz garbitu beharko ditu erretenak eta estalkiak, enpresaren kontura. Enpresak prebentzio eta zuzenketako mantentze-lanak eta erretenen garbiketak erregistratuko ditu xede horretarako “mantentze-lanen liburuan”. Liburuko hori enpresak ekarri behar du, eta Udalak eskatzen duenean, haren aurrean aurkeztu beharko du kontrola eramateko. Aurrekoa ez betetzeak zigorra eragingo du.
- Itoginak konpontzea: enpresak junturak estaltzeko xaflak jarri beharko ditu, edo hondatutako xaflak aldatu. Dena enpresaren kontura. Aurrekoa ez betetzeak zigorra eragingo du.
- Hezetasunak edo kondentsazioak kaltetutako sabai aizuneko plakak aldatzea. Plakak aldatzea enpresaren konturakoa izango da. Aurrekoa ez betetzeak zigorra eragingo du.
- Leihoak gainbegiratzea eta zigilatzea, filtrazioak saihesteko. Enpresaren konturakoa izango da. Aurrekoa ez betetzeak zigorra eragingo du.
- Kalteak dituzten akaberak eta barneko zureriak, kalteak erabilera desegokiak eraginak ez direnean.

Esleipendunak moduluetako osagaien ziurtagiriak eta bermeak aurkeztu beharko ditu, bai eta horiek behar bezala muntatzeko, garraiatzeko eta amaitzeko eskura jarriko dituen giza baliabide eta baliabide teknikoak ere, eta, azkenik, muntatu beharreko instalazio bakoitzerako lan-plana, Udalak onetsi behar duena.

Muntaketak iraun bitartean, Udaleko teknikariek ikuskatuko dute lana. Muntaketa amaitutakoan, Udaleko teknikariek, Haurreskolak Partzuergoko teknikariek eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako teknikariek moduluetako harrerarako nahitaezko kalifikazioari buruzko txostena emango dute. Txosten horretan, lanak ontzat emango dituzte edo 48 orduan zuzendu beharko diren akatsak adieraziko dituzte, eta akatsak epe barruan zuzentzen ez badira, zigorrak ezarriko dira. Nahitaezko txostena emateko epea 5 egun baliodunekoa izango da, muntaketa amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Lanak onesten dituen txostena ematen denetik hasiko da horniduraren berme-epea.

Berme-epea kontratuaren iraupen berekoa izango da. Udaleko teknikariek, Haurreskolak Partzuergokoek eta Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzakoek lanak onesteko txostena ematen dutenean hasiko da horniduraren berme-epea. Bermea moduluak desmuntatzen direnean amaituko da.

Desmuntaketak iraun bitartean, Udaleko teknikariek ikuskatuko dute lana. Desmuntaketa amaitzen denean, teknikariek nahitaezko kalifikazio txostena emango dute kentze-lanen eta okupatutako eremuaren garbiketa-lanen onespena emateko.

7. Modulu prefabrikatuetarako gutxieneko baldintza teknikoak

Agiri honetan fabrikazio berriko modulu prefabrikatuetarako gutxieneko baldintza teknikoak jaso dira.

Memoriaren proiektuan moduluetan –barruan nahiz kanpoan– erabiliko diren material eta produktuen zerrenda aurkeztuko da, eta bertan adieraziko dira ingurumen-ezaugarriak ere, baldin badituzte.

Egitura

- Beroan ijeztutako altzairu tubularreko profilak edo hotzean konformatutako altzairu galvanizatuzko xaflazko profilak, erabilera-, elur- eta haize-gainkargen aurrean egonkortasuna bermatuko dutenak, CTE DB SEko gezi onargarriak gainditu gabe.

Lurzorua:

- Beroan ijeztutako altzairuzko profil perimetralen bidezko bastidorea eta zeharkako uhalak, korrosioaren aurka tratatuak, edo bestela, sistema bera, hotzean konformatutako altzairu galvanizatuzko xafla tolestuko profilez osatua.
- Kontuan hartu beharreko erabilera-gainkarga:

  Lan-bulegoetan: 2 kN/m2;

  Ikasgeletan: 3 kN/m2;

Estalkia:

Mantentze- edo elur-gainkarga 0,7 kN/m2-koa izango da.

8 m baino gutxiagoko argiarekin

- Perimetroko profilen bidez, erretenak eta uhalak osatuz, ahal dela, bi isuriko maldak eraginez.

8 metro baino gehiagoko argiarekin

- Perimetroko profilen bidez, erretenak eta zertxak osatuz bi isuriko maldarekin, eta beharrezkoa bada, uhalekin.

Urak biltzeko ez dute konponbide konplexurik erabiliko, malda leunekin, eta sortzen diren juntura eta lotura guztiak konponduta egongo dira, bai eta perimetroko erremateak ere, ura eta airea sar ez daitezen.

Zoladura:

- Gutxienez 1,5 mm-ko lodierako PVCko zoladura ijeztua edo termikoki isolaturiko hormigoi gaineko sandwich ijezketa.
- Garbigarriak eta urradurekiko erresistenteak izango dira.
- Leku hezeetako zorua urarekiko erresistentea eta iragazgaitza izango da juntura guztietan, eta hustubideranzko maldarekin.

Estaldurak eta sabaiak:

- Estaldura bertan egingo da, moduluen gainean.
- Edonola ere, isolamendu termikoa izango du eta isolamendu termiko eta akustikoari dagokion araudia bete behar du.
- Xafla grekatuz edo panel autosostengarriz osa daiteke, betiere kanpora aurrekalatua.
- Sabai aizuna, zorutik 2,50 metroko altuerara kokatua, bai modularra xurgapen akustikoko xaflekin, bai xafla metaliko zulatua eta xafla fonoxurgatzailearekin.

Kanpoko itxiturak eta barne-banatzaileak:

Haize-gainkarga, gutxienez, 0,65 kN/m2-koa izango da.

Kanpoko itxiturak:

- Sandwich erako panela, gutxienez 100 mm-ko lodierakoak, alde bietatik 0,5 mm-ko xafla galvanizatu aurrelakatu lau edo mikronerbatuarekin, tarteko isolatzaile termikoarekin. Isolamendu termiko eta akustikoari buruzko araudia bete behar dute.
- Kolpe eta urradurekiko erresistenteak izango dira, eta mantentze-lanik behar ez duen akaberarekin, ohiko bitartekoekin garbitzea soilik.

Barne-banatzaileak:

- Sandwich erako panela, gutxienez 40 mm-ko lodierakoak, alde bietatik 0,5 mm-ko xafla galvanizatu aurrelakatu lau edo mikronerbatuarekin, tarteko isolatzaile termikoarekin. Isolamendu termiko eta akustikoari buruzko araudia bete behar dute.
- Kolpe eta urradurekiko erresistenteak izango dira, eta mantentze-lanik behar ez duen akaberarekin, ohiko bitartekoekin garbitzea soilik.
- Apaindura itsuetan arbel digitalei eusteko elementuak aurreikusiko dira.
- Hezitzaileen eta inguruko gelen arteko zuzeneko ikusizko kontaktua ahalbidetzeko, barneko trenkadetan kristalak jarriko dira 1,10 m-ko altueratik gora; beheko aldeetan, berriz, kristalik gabe, lurzoruaren binilo-material bera jarriko da, edo pintura garbigarriak, ez-toxikoak eta kalitate handikoak.

Kanpoko zureria

Moduluetako kanpoko arotzeriak segurtasun sistema nahikoak izango ditu, ahal den neurrian bandalismo eta lapurreta ekintzak saihesteko.

Leihoak:

- Ardatz aldagarrikoak, aluminio lakatu zurizkoak, zubi termikoaren hausturarekin. Beiraren neurria 1 x 1,40 m (750 x 500 mm-koa komunetan)
- Beira bikoitz tenplatua (4-15-4) eta beira ijeztua beheko piezetan (4-15-44.2.).
- PVCzko kanpo-pertsiana bilgarriak, kaxan ezkutatuta.

Kanpoko atea:

- Kanpoko aurrealdea altzairu galbanizatuzko xafla aurrelakatuan, harri-zuntzezko nukleoarekin. Ateak panelaren barruan egonen dira, bere markoak eta elementu ikusezinak panelaren barruan sartuta.
- Ateek segurtasuneko sarraila izango dute.
- Modulutara sartzeko ateek, gutxienez, 0,90na mm-ko zabalerako bi orri izango dituzte, kanporantz irekitzen direnak eta goiko finkoa dutenak. Sarraila giltzaduna izango da eta tiratzailea edo heldulekua izango dute baina bi eskuak erabili behar izan gabe irekitzeko; halaber, ate-kolpeen aurkako euste-sistema izango dute, beharrezkoa denean ateak zabalik uzteko. 40 cm inguruko altuerako zokalo

babeslea izango dute. Burdineria material berekoa izango da, eta profilen barrualdean torloju zulatzaileen bidez lotuak egongo dira. Larrialdietan erraz maniobratzeko moduko irekiera-sistema izango du, atean bertan kokatua (izuaren kontrako sistema).

Barruko zureria

- Pasabideko barneko ateak: aluminio lakatu zurizko markoak eta barneko trenkaden ezaugarri bereko orria, edo xafla esmaltatu bikoitzekoa tarteko isolamenduarekin. Pasabideko tartearen gutxieneko zabalera 0,90 m-koa izango da.
- Ikasgeletako ateak bi orrikoak, 40x80 cm-ko kristalezko behatxuloekin eta giltzadun heldulekuarekin. Bi orriko ateak erabiltzean, normalean zabaldu ohi denak 0,90 cm-ko pasatzeko tartea utziko du.
- Komunetarako ateek sareta edukiko dute beheko aldean, aireztapenerako. Pasabideko tartearen gutxieneko zabalera 0,90 m-koa izango da.
- Komun-ontziak dauden kabinetako ateek kisketa eta kanpoko desblokeoa izango dute.
- Atzamarrak ez harrapatzeko elementuak edukiko dituzte ate guztiek.
- Ateetako heldulekuek haurrentzat irisgarria ez den altueran egon beharko dute. Eskuleku horrek forma biribildua izanen du, segurtasuna are gehiago bermatzeko.

Iturgintza

- Beiraztatutako portzelana zurizko elementu sanitarioak
- Konketak oinarekin eta aginte bakarreko txorrotarekin
- Txorrota kromatuak, itxitura tenporizatuarekin eta aireztagailuarekin
- Bainuontzia eta harraska eskuzkoa ez den eragintzarekin
- Komun-ontziak beheko tankearekin eta hustuketa bikoitzekoak, edo leun eragiteko fluxoreekin
- Hornidura-hodiak kobre, PEX polietileno erretikulatua edo PPR polipropileno erretikulatuzkoak.
- Ixteko giltza kromatua lokal heze eta aparatu bakoitzaren sarreran
- Indarreko legeriaren arabera

2-3 urteko haurrentzako komunak

- Komun-ontzi txikiak
- 1,10x0,50 m-ko piletak, UH eta UBSrekin.
- 30 litroko berogailua, irteerako hidronahasgailuarekin.

Saneamendua

- PVCko hodiak, hainbat diametrokoak sanitarioen eta EKTren arabera.
- Aparatu bakoitzerako sifoi bana.
- Hodiak briden bidez finkatzea
- Indarreko legeriaren arabera

Berokuntza/Klimatizazioa

- Split-bero ponpa motako aire-ekipamenduak, inverter sabaikoak, kanpoko unitate eta urruneko agintearekin.
- Gela nagusiak klimatizatuko dira, eta unitateek gela bakoitzerako behar duten edukiera izango dute. Neguan 21º-tik 23º-ra bitarteko tenperatura bermatuko da eta udan 23º-25º-koa.

Suteen aurkako instalazioa

- Hauts balioaniztuneko eta CO_2ko su-itzalgailuak.
- Seinaleztapen espezifikoa
- Indarreko legeriaren arabera

Argiteria orokorra

- 40 W-eko potentziako LED panelak, 110 Lm/W, 1200x300 mm-koak eta 17 mm-ko lodierakoak, sabai aizunari atxikita.

Larrialdietako argiteria

- Larrialdietako argien instalazioak eraikineko ebakuazio-ibilbideetan argiztapen-maila minimoa bermatuko du, EKTren arabera, ordubetez.

Instalazio elektrikoa

- REBT-2002 Behe tentsioko Araudi Elektroteknikoaren eta jarraibide tekniko osagarrien araberakoa.
- Koadro orokorra eta babesa atondoan kokatuko dira, irteerako atetik hurbil eta lurretik 1,30 m-ra. Metalezko kutxa isolatuan ipiniko dira, ixteko taparekin eta giltzadun sarrailarekin, eskema elektrikoa eta bakelitazko errotuluarekin.
- Ikasgeletako argiztapen maila: 300-400 lux; arbelean: 500 lux; korridoreetan: 150-200 lux; atarietan: 150 lux.
- Bi hargune aurreikusiko dira gelen diagonalaren muturretan.
- Berokuntza/Klimatizazio ekipamendu bakoitzerako hargune bana.
- Instalazio elektrikoaren lurrerako hargunea aurreikusten da, arauen arabera.
- Muntaketa prozesua amaitutakoan, enpresa esleipendunak egiaztatu beharko du egindako instalazioak BTEErekin bat datozela, modulu bakoitzaren proiektu elektriko independentea aurkeztuta, eta legeztapena Industria Sailari aurkeztu beharko zaio.

Ahots/datuen instalazioa

- Instalazioa beharrezkoa balitz, behin-behinean egingo litzateke Sistema, Informazio eta Estatistika Zerbitzuaren jarraibideen arabera.

Ataripea

- Portiko eta uhalen egitura profil ijeztukoa, edo muga elastiko handiko aluminio anodizatuzkoa, sekzio zirkularreko zutabeak, antioxidatzailearekin tratatua eta akaberekin, eta 0,6 mm-ko lodierako xafla profilatu aurrelakatuarekin estalia. Erretenak xafla galvanizatuzkoak izango dira, 1,5 mm-koak eta bilketa-azalerari doituriko sekziokoak. Eutsiko duen elur- mantentze-gainkarga 0,7 kN/m2-koa izango da.

Kalitate-ziurtagiriak

Enpresak honako hauen inguruan dituen ziurtagiriak emango dira:

- Kalitatea- ISO 9001 araua.
- Ingurumen-kudeaketa - ISO 14001 araua
- Segurtasun eta Osasunaren kudeaketa - ISO 18001 araua.

Bizigarritasun baldintzak

- Proiektatutako eraikinak klimaren, aurreikusitako erabileraren eta udako eta neguko erregimenaren arabera ongizate termikoa lortzeko behar den energia-eskariari doituriko inguratzailea du.
- Isolamenduaren eta inertziaren, airearekiko iragazkortasunaren eta eguzki-erradiazioarekiko esposizioaren ezaugarriek aukera ematen dute inguratzailearen ezaugarriei kalte egin diezaieketen kondentsazio-hezetasunak, gainazalekoak eta interstizialak agertzeko arriskua murrizteko.
- Proiektatutako eraikinetan erabiltzaileen beharrizanen araberako argiztapen-instalazioak eta, aldi berean, energetikoki eraginkorrak direnak dauzkate, bai eta gunearen benetako okupazioaren arabera piztea doitzea ahalbidetuko duen kontrol-sistema ere. Halaber, erregulazio-sistema bat daukate, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten guneetan, argi naturala aprobetxatzea optimizatzeko.

Obra zibila eta beharrezkoak diren instalazioak

- Obra zibila egin behar bada moduluak zimendatzeko, harguneak egiteko edo moduluak finkatzeko eta/edo funtziona dezaten beharrezkoak diren instalazioak egiteko, esleipendunaren kontukoak izango dira.

- Moduluak finkatzeko eraikuntza-proiektu bat idatzi beharrik ez badago, Sailaren konturakoak izango dira materiala emateak, ipintzeak, harguneak lotzeak, saneamenduak eta kolektoreak oraingo sareraino eramateak dakartzan kostuak eta modulu multzoa behar bezalako segurtasun- eta osasun-bermeekin abian jartzeko eta erabiltzeko zehaztu ez diren baina beharrezkoak diren bestelako lanak.

Obrako hondakinen kudeaketa

Obran sortutako hondakinen kudeaketa, zabortegietara garraiatzea eta isurketen kanona onartzea, 105/2008 ED, eraikuntzako hondakinen kudeaketari buruzkoari, eta 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena arautzen duenari jarraikiz.

Segurtasun eta Osasunaren Koordinazioa

- Segurtasun eta Osasunaren koordinazioa enpresa esleipendunaren konturakoa izango da.

ZEHAZKI HEZKUNTZARI DAGOKION ARAUDIA BETE BEHARKO DU

Elorrion, 2022ko azaroaren 22an

Arkitektoak

ARANTZAZU FERNANDEZ MARIÑO - 78911855M

Firmado digitalmente por ARANTZAZU FERNANDEZ MARIÑO - 78911855M
Fecha: 2022.11.22 14:53:38 +01'00'

Sinatua: Arantzazu Fernández Mariño

Elorrioko udala

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO Y TRAMITACIÓN URGENTE, DEL SUMINISTRO EN RÉGIMEN DE ARRENDAMIENTO DE MÓDULOS PREFABRICADOS CON DESTINO A AULAS DE HAURRESKOLA Y HAUR HEZKUNTZA DE ELORRIO

ÍNDICE

1. Introducción y Objeto de la actuación 2

2. Emplazamiento 2

3. Normativa de aplicación 2

4. Objeto del contrato 3

5. Disposiciones generales 3

6. Plazos y garantías 5

7. Condiciones técnicas mínimas para los módulos prefabricados 6

1. Introducción y Objeto de la actuación

La Haurreskola y Haur Hezkuntza de Elorrio se encuentra situada en un edificio ubicado en calle Goieta 62.

El edificio es objeto de una reforma completa con una duración aproximada de 12 meses, es por ello que se precisa dotar provisionalmente a la Haurreskola y Haur hezkuntza de dependencias mediante la utilización de módulos prefabricados de nueva fabricación desmontables, con sus correspondientes instalaciones interiores de abastecimiento de agua, saneamiento, electricidad, climatización, etc…, según el programa de necesidades.

Es imprescindible que las instalaciones sean adecuadas al servicio que se pretende ofrecer y que recojan diseño con funcionalidad, seguridad y tratamiento educativo.

2. Emplazamiento

Los módulos prefabricados se ubicarán el en aparcamiento exterior que se encuentra ubicado delante de la Elorrioko Eskola.



3. Normativa de aplicación

A título meramente enunciativo, y no exhaustivo, se señala a continuación la Normativa a cumplir:

- El **Planeamiento urbanístico, la normativa y las ordenanzas municipales de aplicación**; el Código Técnico de la Edificación **CTE**, la normativa de **Accesibilidad** (Ley 20/1997, de 4-DIC del Parlamento Vasco y su Decreto de desarrollo 68/2000, de 11-ABR; Orden TMA/851/2021, de 23 de julio, por la que se desarrolla el documento técnico de condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y la utilización de los espacios públicos urbanizados): el **Código estructural**; la Norma de Construcción Sismorresistente **NCSE-02** (R.D. 997/2002, de 27-SEP); el Reglamento de Instalaciones Térmicas en los Edificios RITE; la reglamentación sobre **Legionellosis**; el Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión REBT (R.D. 842/2002, de 2-AGO); la normativa de Clasificación de productos de construcción y de los elementos constructivos en función de sus propiedades de **Reacción y de Resistencia frente al Fuego** (R. D. 842/2013, de 31-OCT); el **Reglamento de Instalaciones de Protección contra Incendios** (R.D. 513/2017, de 22-MAY); las normativas de **Seguridad y Salud**, de **Control de Calidad**,

y de **Gestión de Residuos**, **Decreto 215/2004**, de 16 de noviembre, por el que se establecen los requisitos mínimos de las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años, así como la demás normativa vigente que resulte de aplicación.

4. Objeto del contrato

Se trata de la instalación de un edificio prefabricado donde se ubiquen todas las dependencias necesarias para albergar a los docentes, niños y niñas de la Haurreskola y la Haur Hezkuntza durante la duración de las obras de reforma del edificio actual.

El contrato comprende el suministro y la instalación completa, llave en mano, de los módulos. Incluida cualquier obra civil e instalaciones necesarias para la completa instalación de los mismos. El contrato incluye también el desmontaje de los módulos y sus instalaciones.

El suministro objeto de este Pliego, comprenderá:

Haurreskola:

- 2 aulas con capacidad para albergar 8-10 niños/as cada una
- Un office
- Aseos con espacio de cambiador
- Aula de siesta

Haur Hezkuntza:

- 2 aulas con capacidad para albergar 13 niños/as cada una
- Aseos entre las aulas
- Un aula multiusos destinada a comedor y aula de psicomotricidad

Espacios comunes para HE y HH:

- Un despacho con capacidad para albergar dos puestos con ordenador y una mesa de 1x2m aproximadamente.
- Aseos y vestuarios.
- Un porche/espacio cubierto para poder aparcar los carritos.
- Almacén

Requisitos generales Artículo 5 D215/2004:

- Ubicación en locales de uso exclusivo, con acceso independiente desde el exterior.
- Un espacio para usos múltiples, con unas superficies no inferior a 30m²
- Un despacho de Dirección-Secretaría
- Un espacio de juegos, destinado a niños/as de edades comprendidas entre 1 y 3 años, que estará acotado, garantizando la seguridad de los niños/as, y será de uso exclusivo durante su utilización, con una superficie no inferior a 75m² por cada seis unidades y fracción. Se incrementará en 10m² por cada nueva unidad que supere las citadas.
- Un aseo para el personal, separado de las unidades y de los servicios de los niños/as, que contará con un lavabo, un inodoro y una ducha.

5. Disposiciones generales

Las edificaciones a instalar estarán compuestas por módulos prefabricados de nueva fabricación que permitan realizar trabajos de ensamblaje o adosamiento en sus componentes para formar conjuntos acabados. Las dimensiones de los componentes, deberán permitir su montaje sin el uso de medios extraordinarios y su transporte por vías ordinarias de circulación rodada. Los módulos se dispondrán en una única planta.

En todo caso, se adaptarán, a las prescripciones definidas en este Pliego de Prescripciones técnicas y, en cuanto a su tipología, al programa de necesidades de la Haurresko y Haur-hezkuntza.

A este respecto, señalar que los usos serán: aulas, núcleos de aseos para alumnos/as y profesorado, cambiadores, despacho, office, comedor, vestuario, psicomotricidad y almacén.

Los módulos serán destinados para:

- Aulas
- Sala de siesta
- Comedor
- Office
- Cambiador
- Aseos
- Vestuarios
- Despacho
- Almacén
- Aula de psicomotricidad
- Espacios de circulación
- Porche para aparcamiento de sillas y carros

AULA: Espacio docente de superficie aproximada de 30m² útiles.

Serán diáfanas y de forma rectangular, con altura libre de 2,50m. Tendrán acceso directo desde el vestíbulo.

SALA DE SIESTA: Dispondrá de ventanas en la pared provistas de cristal de seguridad 3+3 de espesor mínimo para garantizar el contacto visual, deberán tener aislamiento acústico.

COMEDOR: Será diáfano y tendrá una altura libre de 2,50m.

ASEOS: Espacio para el servicio higiénico. El aseo de los alumnos de HE tendrá acceso desde las aulas de HE.

ASEOS INFANTILES: contarán con dos lavabos, dos inodoros de dimensiones proporcionadas a la edad de los niños y niñas.

CAMBIADOR: Las aulas dispondrán de zonas para la higiene del niño/a, relacionadas visualmente entre sí para que los/as educadores/as, mientras trabajan, puedan comunicarse y relacionarse con los/as niños/as.

La zona para el aseo e higiene del niño/a estará cerrada hasta el techo, se dispondrá de muebles para cambiar al niño/a y de una bañera con un grifo de manguera y otro de accionamiento no manual.

Las zonas destinadas al aseo e higiene del niño/a nunca pueden ser zonas de paso a las aulas.

La zona de aseo e higiene del niña/o estará completamente cerrada hasta el techo por una cristalera con ventana de apertura, de este modo, los/as educadores/as podrán hablar y relacionarse con las/os niñas/os teniendo la ventana abierta y mantener el contacto visual de la sala. La cristalera con una ventana se instalará a partir de los 0,90 m de altura y se colocará un cristal de seguridad de 3+3 de espesor mínimo. Se deberá seguir el mismo criterio anterior y no colocar las cosas de modo que el personal educativo de la espalda a los/as niños/as cuando está cambiando a una/os de ellas/os. La solución que se propone consiste, básicamente, en una amplia encimera donde el/la pequeño/a puede ser cambiada/o con comodidad a la vez que se establece una relación comunicativa con él.

ASEO-VESTUARIOS: contará con un lavabo, inodoro, ducha, taquillas, dosificador de jabón y toallero de papel.

OFFICE: Dispondrán de un área adecuada para la preparación de alimentos, relacionadas visualmente entre sí, para que los/as educadores/as, mientras trabajan, puedan comunicarse y relacionarse con los/as niños/as.

Las zonas destinadas a la preparación de alimentos nunca pueden ser zonas de paso a las aulas.

Contará con una zona de almacenaje, espacio de basuras, espacio para frigorífico, lavavajillas, microondas y fregadero.

SALA DE USOS MÚLTIPLES: Se trata de una sala destinada a diferentes usos como sala de psicomotricidad, comedor, etc.

ALMACÉN: deberá disponer de mínimo 15m².

DESPACHO: deberá disponer de una mesa con espacio para ubicar dos ordenadores, y otra mesa de 1x2m, espacio para impresora y dispondrá de internet.

ESPACIO DE JUEGOS: se dispondrá de un espacio totalmente acotado o limitado para garantizar la seguridad de los/as niños/as y será de uso exclusivo durante su utilización.

PORCHE: se dispondrá de una zona cubierta para albergar los carritos de los niños y niñas.

6. Plazos y garantías

El plazo de entrega del suministro, porte y montaje será de un mes como máximo a contar desde la firma del contrato.

El plazo de desmontaje una vez notificada la resolución del contrato será un mes como máximo.

Serán por cuenta de la empresa los gastos derivados de:

- Medios de montaje y desmontaje (grúas, autogrúas, etc.)
- Transporte de los módulos al lugar de ubicación
- Conexión de todas las instalaciones interiores hasta la conexión general a pie de los módulos
- Legalización de las instalaciones ante el Departamento de Industria
- Reparación de las averías y desperfectos ocasionados en el transporte, montaje y desmontaje
- Corriente eléctrica para el montaje y desmontaje
- Gestión de los residuos generados
- Coordinación en materia de seguridad y salud durante el montaje y desmontaje
- IVA correspondiente
- Obra civil necesaria para la colocación de los módulos prefabricados
- Puesta a disposición de los servicios necesarios a pie de los módulos (agua, saneamiento, electricidad, etc)

Por otra parte, todos los residuos que se generen durante el montaje se tratarán de acuerdo con lo establecido en el RD 105/2008 de gestión de residuos de construcción, y el Decreto 112/2012 de 26 de junio que regula producción de residuos de construcción y demolición a nivel autonómico.

El plazo de garantía de los módulos prefabricados será la duración del contrato derivado comprometiéndose el adjudicatario a reponer y reparar todo aquello que en el transcurso de ese tiempo presentara algún defecto.

Las empresas, deberán atender antes de 24 horas, a partir del aviso, de cualquier circunstancia sujeta a garantía. Correrán con cargo a la empresa todos los gastos de mano de obra, medios y materiales de aquellos arreglos sujetos a garantía.

Asimismo, deberá realizar un mantenimiento preventivo y correctivo tres veces al año, y consistente en una inspección del estado de los módulos en su integridad en lo que afecta a seguridad estructural y de utilización, habitabilidad y estanquidad prestando atención a los siguientes elementos:

- Cubiertas y los canalones: la empresa deberá realizar tres limpiezas de canalones y cubiertas anuales que correrán a cargo de la empresa. La empresa, registrará los mantenimientos preventivos y correctivos, y las limpiezas de canalones que realice en un “libro de mantenimiento” al efecto que será aportado por la misma, y que se presentará en el Ayuntamiento para su control cuando le sea requerido. Su incumplimiento dará lugar a penalidades.
- Reparación de goteras: la empresa deberá colocar chapas cubrejuntas o sustituir las chapas dañadas, que correrán a cargo de la empresa. Su incumplimiento dará lugar a penalidades.
- Sustitución de placas de falsos techos por humedades y condensaciones. La sustitución de las placas correrán a cargo de la empresa. Su incumplimiento dará lugar a penalidades.
- Repaso y sellado de ventanas evitando filtraciones que correrán a cargo de la empresa. Su incumplimiento dará lugar a penalidades.

- Acabados y carpinterías interiores que presenten desperfectos que no se deban a un uso inadecuado de los mismos.

El adjudicatario deberá presentar certificaciones y garantías de los componentes de los módulos así como de su montaje correcto, los medios humanos y técnicos que pondrán a disposición para su montaje, transporte y acabado y, finalmente, un plan de trabajo para cada una de las instalaciones a montar que será aprobado por el Ayuntamiento.

Durante el montaje, los técnicos del Ayuntamiento supervisarán el trabajo. Una vez finalizado el montaje los técnicos del Ayuntamiento, los técnicos del Consorcio de Haurreskolas y los técnicos de la Delegación Territorial de Educación de Bizkaia emitirán un informe de calificación preceptivo de recepción de los módulos en el que darán el visto bueno a los trabajos, o señalarán los defectos que deberán ser subsanados en un periodo de 48 horas y que en caso de no subsanarse en plazo darán lugar a penalidades. El plazo para la emisión del preceptivo informe será de 5 días hábiles a contar a partir del día siguiente en el que se finalice el montaje. Desde la emisión del informe dando el visto bueno comenzará el plazo de garantía del suministro.

Se establece un plazo de garantía por la duración de los contratos derivados. Una vez el departamento técnico del Ayuntamiento, del Consorcio de Haurreskolas y de la Delegación Territorial de Educación de Bizkaia emitan el informe dando el visto bueno al montaje, comenzará el plazo de garantía del suministro. La garantía finalizará con el desmontaje de los módulos.

Durante el desmontaje de los módulos, los técnicos del Ayuntamiento supervisarán el trabajo. Una vez finalizado el desmontaje los técnicos emitirán un informe de calificación preceptivo en el que darán el visto bueno a los trabajos de retirada y limpieza de la zona ocupada.

7. Condiciones técnicas mínimas para los módulos prefabricados

Estos pliegos contienen características técnicas mínimas de los módulos prefabricados de nueva fabricación.

En la memoria del proyecto se deberá presentar un listado con los materiales y productos que se van a utilizar en los módulos, tanto en el interior como exterior, indicando sus características ambientales en caso de tenerlas.

Estructura

- Perfiles de acero tubular laminado en caliente ó perfiles de chapa de acero galvanizada conformada en frío que garantice la estabilidad en cuanto a sobrecargas de uso, de nieve y viento sin sobrepasar las flechas admisibles del CTE DB SE.

Suelo:

- Bastidor mediante perfiles perimetrales de acero laminado en caliente y correas transversales, tratadados contra la corrosión, o bien, sistema idéntico a base de perfiles de chapa plegada de acero galvanizada conformada en frío.
- Sobrecarga de uso a considerar:

  En despachos: 2 kN/m2;

  En aulas: 3 kN/m2;

Cubierta:

La sobrecarga de mantenimiento o nieve será de 0,7 kN/m2.

Con luz menor a 8 mts.

- Mediante perfiles perimetrales conformando el canalón y correas, preferentemente formando pendientes a dos aguas.

Con luz mayor a 8 mts.

- Mediante perfiles perimetrales conformando el canalón y cerchas con pendiente a dos aguas, disponiendo correas si fuera necesario.

Resolverán las recogidas de aguas evitando soluciones complejas, con pendientes suaves, teniendo resueltas todas las juntas y uniones que se produzcan, así como los remates perimetrales para evitar entrada de agua y aire.

Solado:

- Pavimento laminado de PVC de 1,5 mm espesor mínimo, o laminado estratificado sobre base hormigonada aislada térmicamente.
- Serán lavables y resistentes a la abrasión.
- El suelo de las zonas húmedas será resistente al agua e impermeable en todas sus juntas con pendiente hacia el desagüe.

Cubrición y techos:

- La cubrición se ejecutará in situ sobre los módulos.
- En cualquier caso, dispondrá de aislamiento térmico debiendo cumplir la normativa de aislamiento térmico y acústico.
- Puede componerse de chapa grecada o panel autoportante, siempre prelacado al exterior.
- Falso techo colocado a 2,50 metros de altura desde el pavimento, bien modular con placas de absorción acústica, bien con láminas metálicas perforadas y lámina fonoabsorvente.

Cerramientos exteriores y particiones interiores:

La sobrecarga de viento será como mínimo de 0,65 kN/m2.

Cerramientos exteriores:

- Paneles tipo sandwich de 100 mm. de espesor mínimo con chapa galvanizada prelacada lisa o micronervada de 0,5 mm por ambas caras, con aislante térmico intermedio, debiendo cumplir la normativa de aislamiento térmico y acústico.
- Serán resistentes a los golpes y al a abrasión, y con terminación que no necesite mantenimiento, solamente limpieza con medios normales.

Particiones interiores:

- Paneles tipo sandwich de 40 mm. de espesor mínimo con chapa galvanizada prelacada lisa o micronervada de 0,5 mm por ambas caras, con aislante térmico intermedio, debiendo cumplir la normativa de aislamiento térmico y acústico.
- Serán resistentes a los golpes y al a abrasión, y con terminación que no necesite mantenimiento, solamente limpieza con medios normales.
- Se preverán elementos de sujeción de las pizarras digitales en los paramentos ciegos.
- Para permitir el contacto visual directo entre las educadoras y las aulas próximas, en los tabiques interiores se colocarán cristales a partir de 1,10m de altura, mientras que las partes inferiores, no acristaladas, se colocará el mismo material vinilo que el suelo o bien con pinturas lavables, no tóxicas y de alta calidad.

Carpintería exterior

La carpintería exterior de los módulos dispondrá de sistemas de seguridad suficientes para evitar en la medida de lo posible actos de vandalismo y robos.

Ventanas:

- Oscilo-batientes de aluminio lacado blanco con rotura de puente térmico.
- Doble acristalamiento en vidrio templado (4-15-4) y en vidrio laminado en las piezas bajas (4-15-44.2.)
- Persianas exteriores enrollables de PVC oculta en su cajón.

Puerta exterior:

- Frontal exterior en chapa de acero galvanizado prelacado, con núcleo de lana de roca. Las puertas irán dentro del panel, con sus marcos y elementos invisibles e insertados dentro del panel.
- Las puertas dispondrán de cerradura de seguridad.
- Las puertas de entrada a los módulos serán como mínimo de dos hojas de 0,90 m de ancho cada una, abatibles hacia el exterior y con fijo superior, llevarán cerradura de llave y tirador ó manilla que no exija ambas manos para abrirlas, así como sistema de retención antiportazos y de sujeción cuando sea necesario dejarlas abiertas. Llevaran zócalo protector de unos 40 cm de alto. Los herrajes serán del mismo material e irán fijadas con tornillos taladrantes al interior de los perfiles. Contará con un sistema de apertura de fácil maniobrabilidad en caso de emergencia y situado en la propia puerta (sistema antipánico).

Carpintería interior

- Puertas interiores de paso: marcos de aluminio lacado blanco y hoja de idénticas características a los tabiques interiores, o de doble chapa esmaltada con aislamiento intermedio. La anchura mínima del hueco de paso será de 0,90 m.
- Puertas de aulas en dos hojas, con mirillas acristaladas de 40x80 cm. y pomo con llave. Cuando se utilicen puertas de dos hojas, la que habitualmente se abra dejará un paso libre de una anchura de 0,90 m.
- Puertas de acceso a los aseos con rejilla inferior para ventilación. La anchura mínima del hueco de paso será de 0,90 m.
- Puertas de las cabinas de inodoros con pestillo y desbloqueo exterior.
- Todas las puertas contarán con elementos antipilladedos.
- Las manillas de las puertas deberán estar a una altura que no pueda ser accesible para los niños y niñas. Dicha manilla tendrá forma redondeada, para garantizar aun mas la seguridad.

Fontanería

- Aparatos sanitarios de porcelana vitrificada blanca
- Lavabos con pedestal y grifo monomando
- Grifos cromados con cierre temporizado y aireador
- Bañera y fregadero de accionamiento no manual.
- Inodoros con tanque bajo y de doble descarga ó con fluxores de accionamiento suave
- Tuberías de suministro en cobre, polietileno reticulado PEX ó polipropileno reticulado PPR
- Llave de corte cromada en la entrada de cada local húmedo y de cada aparato
- Según normativa vigente

Aseos para niños de 2-3 años

- Inodoros pequeños
- Piletas de 1,10x0,50 m. con AF. y ACS.
- Calentador de 30 litros con hidromezclador en salida

Saneamiento

- Tuberías de PVC de diámetros variables según sanitarios y CTE
- Sifones individuales por aparatos
- Fijación de tuberías por bridas
- Según normativa vigente

Calefacción-Climatización

- Equipos de aire tipo split-bomba de calor de techo inverter con unidades exteriores, y mando a distancia.
- Se dotará de climatización a las dependencias principales, y la capacidad de las unidades será la adecuada para cada estancia, garantizándose una temperatura en invierno de 21º a 23º y en verano de 23º-25º.

Alumbrado general

- Paneles LED de 40W de potencia, 110 Lm/W de dimensiones 1200x300 mm y un espesor total de 17mm, colocadas adosadas al falso techo.

Alumbrado de emergencia

- La instalación de alumbrado de emergencia garantizará en los recorridos de evacuación del edificio, un alumbrado con un nivel de iluminación mínimo según CTE durante una hora.

Instalación contra incendios

- Extintores de polvo polivalente y de CO2.
- Señalética específica
- Según normativa vigente

Instalación eléctrica

- Según Reglamento Electrotécnico de Baja tensión REBT-2002 e instrucciones técnicas complementarias.
- El cuadro general y protección se situará en el vestíbulo, próximo a la puerta de salida y a más de 1,30 m del suelo. Irán en caja metálica aislada con tapa de cierre y cerradura de llave, con esquema eléctrico y rótulos de bakelita.
- Nivel de iluminación en aulas: 300-400 lux; en pizarra: 500 lux; en pasillos: 150-200 lux; en porches: 150 lux.
- Se preverá dos tomas en los extremos de la diagonal de las aulas.
- Una toma para cada equipo de calefacción-climatización.
- Se prevé toma a tierra de la instalación eléctrica, según norma.
- Una vez terminado el proceso de montaje, la empresa adjudicataria deberá acreditar que las instalaciones realizadas están conformes al REBT con la presentación del Proyecto Eléctrico Independiente de cada módulo, incluyéndose la legalización ante el Departamento de Industria.

Instalación de voz-datos

- Si fuera preciso la instalación, esta se realizaría provisionalmente según las directrices del Servicio de Sistemas, Información y Estadística.

Porche

- Estructura de pórticos y correas con perfiles laminados, o de aluminio anodizado de alto límite elástico, pilares de sección circular, tratado con antioxidante y acabado, y cubierta de chapa perfilada prelacada de 0,6 mm. de espesor. Los canalones serán de chapa galvanizada de 1,5 mm. y de sección adecuada a la superficie de recogida. Resistirá una sobrecarga de nieve-mantenimiento de 0,7 kN/m2.

Certificados de calidad

Se aportarán aquellos certificados que tenga la empresa relativos a:

- La calidad -Norma ISO 9001.
- La gestión ambiental-Norma ISO 14001.
- La gestión de seguridad y salud-Norma ISO 18001

Condiciones de habitabilidad

- El edificio proyectado dispone de una envolvente adecuada a la limitación de la demanda energética necesaria para alcanzar el bienestar térmico en función del clima, del uso previsto y del régimen de verano y de invierno.
- Las características de aislamiento e inercia, permeabilidad al aire y exposición a la radiación solar, permiten la reducción del riesgo de aparición de humedades de condensación, superficiales e intersticiales que puedan perjudicar las características de la envolvente.
- La edificación proyectada dispone de instalaciones de iluminación adecuadas a las necesidades de sus usuarios y a la vez eficaces energéticamente disponiendo de un sistema de control que permita ajustar el encendido a la ocupación real de la zona, así como de un sistema de regulación que optimice el aprovechamiento de la luz natural, en las zonas que reúnan unas determinadas condiciones.

Obra civil e instalaciones necesarias

- Si fuera necesario la realización de obra civil para el asentamiento de los módulos como cimentación, acometidas e instalaciones que se precisen para el asentamiento y/o funcionamiento de los módulos a pie de los mismos, ocrrerán por cuenta del adjudicatario.
- En el caso de que para el asentamiento de los módulos no sea preciso la redacción de un proyecto constructivo, los costos derivados de la aportación de materiales, su colocación, enganches de acometidas, saneamientos y colectores hasta la red existente, y otros trabajos no especificados pero necesarios para la puesta en marcha y utilización del conjunto modular con las debidas garantías de seguridad y salubridad correrán por cuenta del Departamento.

Gestión Residuos en obra

- Gestión de los residuos generados en la obra, transporte a vertederos y abono de canon de vertidos en cumplimiento del el RD 105/2008 de gestión de residuos de construcción, y el Decreto 112/2012 de 26 de junio que regula producción de residuos de construcción y demolición a nivel autonómico.

Coordinación en materia de Seguridad y Salud

- La coordinación en materia de seguridad y salud correrá a cargo de la empresa adjudicataria.

ESPECÍFICAMENTE DEBERÁ CUMPLIR LA NORMATIVA CORRESPONDIENTE A EDUCACIÓN

En Elorrio, a 22 de noviembre de 2022

La arquitecta

ARANTZAZU FERNANDEZ MARIÑO - 78911855M

Firmado digitalmente por ARANTZAZU FERNANDEZ MARIÑO - 78911855M
Fecha: 2022.11.22 14:52:13 +01'00'

Fdo: Arantzazu Fernández Mariño